

ELKARRIZKETA: ENRIQUE ESPARTZA, ENOLOGOA

ARKO

Arrasate

P R E S S

2000.eko
azaroaren 10a
516. zenb.





Eskuak lan tresna

Gatzagan Sanmilixan azoka
izango da domekan

IKUSPEGIA: NEKANE SAN MIGEL • EUREN IKUSPUNTUTIK: ANTON MENDIZABAL
KIROLA: SAIOA KARATE TALDEA • KULTURA: FANTASIAZKO ZINE MARATOIA

Fotodepilazioa

Zure ilea desagertarazteko, orain da garaia!!



Olarte, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

- Gizon eta emakumeentzat egokia.
- Ilerik zitalena kentzeko metodorik berriena.
- Ilea epe laburrean galtzen da.
- Gorputzeko edozein ataletan egin daiteke fotodepilazioa.
- Ez du minik edo eragozpenik sortzen.
- Ez dago bigarren mailako efektu aipagarriarik.
- Saio kopurua gorputzeko atalaren arabera izaten da.

MASAJEA

masaje terapeutikoa
kirol masajea
osteopatia
kinesiologia



KABINA

gorputz tratamendua
aurpegi tratamendua
drenaje linfatikoa
depilazio elektrikoa
solariuma (zutik eta etzana)

KORA O NEAL

Ayer

HR
HOLESA RUBINSTEIN

CLARINS
PARIS

BIO THERM

VALMONT

Kontraesanak?

Aurreko hilabetean argitaratutako zutabe-an, Alardeari buruz eta Maritxuren mirariak ibili nintzen. Hondarribiara bueltatuaz bat, harrera "goxo" hau izan zutela hemen izandakoek jakin nuen, "Arrasaten bai, Hondarribian ez" irakur zitezkeen "ongi-etorritako" prestatutako pegatatan... eta jakin ere, eguneroko martirioan jarraitzen duela berdintasuna alardean guztiak parte hartzeko eskubidea gauzatzetik pasatzen dela uste duen edonork.



Nekane San Migel

Esangura bereaz ez bada ere, hamaika horrelako, "han bai, baina hemen ez" egokitu izan zaigu bizitza osoan, baina ez dakit inoiz hain nabarmen, ozen eta lotsagabe: Palestinaren autodeterminazioaren alde, baina Euskadirako ezta planteatzeko aukera-

Palestinaren autodeterminazioaren alde, baina Euskadirako ezta planteatzeko aukerarik ere

rik ere; Hirugarren munduko hizkuntz eta bertako bizitza-ohiturak globalizazioaren ondorioz suntsituz doazela jakitean, inguru hauetako makina bat "progre" zerbait egitearen alde agertzen zaizkigu, baina euskara erabiltzearen aurka geroz eta nabarmenago zabaltzen ari den kanpaina, zilegia omen da hauetariko askorentzat, ezjakintasun eta kultura

ezaren adierazle omen da hizkuntza gutxitu eta hiltzorian dagoen gurean ikastea-eta... Auzitegi Konstituzionalak edozein karnet modu identifikatze-ko baliagarri dela aspaldi esan zuten, baina ENA onartzea terrorismoari mesede egitea da (hala esan zuten epaile batek: sententzia hori Huelvan ematea ez dela arazoa, baina ez ausartu euskaldun terroristen artean horrelakoetara...)... Espainiako progresista

asko H.D.Thoreauk XIX. mendean, eta Amerikarako mamitutako desobeditze zibilaren balioa azpimarratu dute hainbat urtetan, baina epaile iluminatu batek hori terrorismoa dela ebazpen batean agertzea nahikoa izan da denak isilik gelditzeko, badaezpada ere... Beste alde batetik, baina, antzera dihardute modu baketsu hori armen erabilerarekin zerikusirik agertu nahian ari direnak...

Euskal Herriko egunkari bat baino gehiago heriotz zigorraren aurka azalduz, hamaika erreportaje argitaratu ditu, baina ez dakit zeren izenean etsai politikoari tiro bat ematea zurikeria eta justifikazioz "konstestualizatuz" aztertzen du.

Ez dago dudarik ez hau gertatzea, ezta agertzea berria denik, lehen nioen moduan, baina kanpoan usoa ez zen inoiz hain otso izan etxean, eta gure horretan aspaldion izena eta izana galtzeko apustuak gabiltzala dirudi... Poetak asmatutako bertso triste eta gogorak inoiz baino mingarriago datozkit burura.

Madrildik datoz oraiatzeko. ■

"Horretan datza idazlearen egitekoa: gehiengoak ez duen munduaren ikuspegi bat planteatzean, lurralde berriak agertaraztean"

Espido Freire

5.500

milioi pezetako aurrekontu arrunta izango du Muk 8 urtez.

Batez ere ikerketan igarriko da aurrekontuaren igoera; izan ere, gaur egun 600 milioi pezetako aurrekontua dauka eta 1.850 milioi pezeta izatera iritsiko dela aurreikusi dute arduradunek. MUren aurrekontu arrunta 3.400 milioi pezetakoa da.

AURKIBIDEA

- Ikuspegia **3**
- **Kontraesanak**
- Irakurlea idazle **4**
- Inkesta **5**
- Euren ikuspuntutik **6**
- **Batasuna prozesua**
- Begi kolpez **7**
- Asteko hitzorduak . . . **8/9**
- Astearren erreposoa . . . **10**
- Orain eta hemen . . . **12/13**
- Hazi eta hezi **14**
- Txutxumutxuak **15/17**
- Asteko gaia **18/19**
- **Gatzaga txikia, azoka handia**
- Aurrez aurre **18/19**
- **Enrique Espartza**
- Kirolak jokoan **22/23**
- Zaldibar areto futbola . . **24**
- Eskola kirola **26**
- Kulturaren txokoa **27/29**
- Ikusi eta entzun . . . **30/31**
- Azoka plaza **32/33**
- Foto zaharra **34**

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Manjé Deogracias. Kazetariak: Ubane Madera eta Leire Kortabarria. Publizitatea: Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroabe. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). Zuzentzailea: Sergio Azkarate. Administrazioa: Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar (Tel.: 943 71 23 90) Bilelina: Mañdi Trubuelo. Asteburuetako berriemakilerak: Lorea Agiriano. Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Saila. Banaketa arduraduna: Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 71 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.500. Logo-Gordailua: 112488. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Ger-tu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Gatzagako Udala.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Igualariora 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Arrasate
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Udaltzaingoa

Oñati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburategia

Monterron 943 77 01 05

KEPA URRA CORUÑARA "HURBILDUA"!

Kepa Urra, euskal preso politiko atxabaltarra, Madrilgo Alcalá Meco espetxetik Coruñaiko Curtis-ko espetxera eraman dute. Curtis, Santiago de Conpostelatik 30 km. ra dago. Erromes askoren helburu izan den Santiago de Conpostelarako bide luze eta neketsua, Keparen senide eta lagunen ohiko ibilbide bihurtuko da aurrerantzean, Espaniako estatuarren "graziari" esker.

Madrilera bidean 850 km, 8 ordu eta 15.000 pezeta beharrezkoak baziren, "hurbilketa" horren ondorioz, Coruñarako bidean 1.400 km, 2 egun eta 40.000 pezeta behar izango dira bidaia bakoitze-ko.

Urriaren 23an Madrildik atera eta 25ean Coruñaara heldu zen. Ingresoko modulu batean bete zuen lehendabiziko eguna eta ondoren, inongo arrazoi jakinik gabe, aislamenduko modulu batean sartu zuten Oñatiko Alberto Plazaola kidearekin batera. Hau gutxi balitz, iragan domekako geroztik gutzit inkomunikaturik dago, ez bisita, ez eskutitz, ez telefono deirik, ezer ere ez!

Nonbait estatu espainia-

rrari ez zaio nahikoa iruditzen Kepa preso edukitzea eta zigorra gogortu asmoz, horrelako estrategia Demokratiko, Judizial eta baketsuak lanean jaritzea du gogoko.

Estatu espainiarrak berak duen legediak dioenaren aurka, euskal gizarteak berak eskatzen duenaren aurka, munduan hainbat erakunde bakezalek (Amnistiaren Internazional, Madres de la plaza de Mayo...) eskatzen dutenaren aurka, temati, itsu eta ezkor eusten dio estatu espainolak jarrera atzerakoi horri.

Atxabaltako herriari dei egin nahi diogu plataformatik: Keparen egoera gogoan izan ezazue, eskutitzak idaztera anima zaitezte eta antolatuko diren ekintzetan parte har ezazue.

Euskal Presoak Euskal Herrira Aretxabaletako plataforma

Karitatea ala Justizia?

Goseak dagoenari arrain bat ematea baino, kanabera bat eman eta arrantzan erakustea hobe dela esan ohi da. Baina, oraindik ere hobe da arrantzan harra-patutakoa ez lapurtzea.

Zer zentzu du Gabonetan Hirugarren Mundurako karitatezko laguntza ematea, kafea, jostailuak, arropak, txokolata eta beste hainbat gauza, Hirugarren Munduko biztanleak esplotatzen dituzten multinazionalei erosten badizkiegu?

Txiapasko kafe nekazari- eta Indiako ehungileek beren lanagatik bidezko ordaina jasotzea eskatzen dute, ez dute nahi beste inor beren bizkarretik aberastu eta ondoren limosna ematerik nahi. Eta horretarako iparraldeko kontsumitzaile aberatsen laguntza eskatzen dute.

Iparaldean kontsumitzaileak eta Hegoaldean langile taldeak elkarlanean aritu behar dugu justiziaren alde.

Elkarrekin lan egin behar dugu etorkizuneari gure laguntzaren beharrik izan ez dezaten. Baina, horretarako, lehenik eta behin, haiek esplotatzeari utzi behar diogu.

Harreman Bidezko Merkataritza Denda

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Ostirala, 10

- Ruiz, Maalako Errabala

Larunbata, 11

- Morales, San Andres

Igandea, 12

- Azkoaga, Ferrerías

Astelehena, 13

- Azkoaga, Iturriotz

Astearte, 14

- Korkuera, Musakola

Asteazkena, 15

- Irizar, Erguin

Osteguna, 16

- Amezuza, Santa Marina

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Egon zara inoiz San Millaneko ferian?

Datorren zapatuan egingo da San Millan feria Gatzagan



Pedro Uranga
(44 urte)
Langilea

Ez, ez naiz inoiz egon. Herrian egin direnak ikusi izan ditut, baina ez naiz ikustera joaten.



Julia Ignacio
(56 urte)
Etxekoandrea

Ez, ez naiz inoiz egon, baina gustuko ditut horrelako azokak.



Rafael de la Cruz
(59 urte)
Langilea

Ez, ez naiz inoiz egon. Ganadu feriaren bat ikusten egon naiz lagunekin, baina Gatzagan ez naiz egon.



Ana Rosa Guridi
(32 urte)
Etxekoandrea

Ez, ez naiz inoiz egon. Atsegin ditut artisautza gauzak, baina Gatzagan ez naiz egon. Larunbatean eguraldi ona egin ez gero, agian joango naiz.



Aurora Ruiz
(37 urte)
Etxekoandrea

Bai, birritan egon naiz eta asko gustatzen zait. Inoiz erosi izan dut zerbait.



Julia Panero
(50 urte)
Langabetua

Ez, ez naiz egon eta ez dut ezagutzen. Hala ere, ez naiz feriazalea.



Juan Manuel Hernandez
(18 urte)
Ikaslea

Ez, ez dut ezagutzen, hemen ikasten baino ez nabil.



Txomin Goitia
(58 urte)
Langilea

Ez. Oñatin eta Garagartzan bai, baina Gatzagan ez. Lekeitiarrak gara eta barikuan bertara joaten gara.



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Skaintza berezia solariumean

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

Amaia

frutadenda

esku aldatzen da

943 77 01 79

USTEAK USTE

Intsumisioari esker

Astearte gauean egin zen derrigorrezko soldadutzara joango direnen azken zozketa. Amaitu da azkenean intsumisioek eta antimilitaristek horrenbeste aldis eskatu dutena: **derrigorrezko soldadutza. Baina, antimilitaristen borroka ezin da hor gelditu. Armadaren izaeraren aurka jotzen segitu behar du mugimendu antimilitaristak. Jakin badakit intsumisioak lan handia egin duela derrigorrezko soldadutzaren aurka eta euskal gizartean borroka legitimotzat onartua izan zedin lortu zuela. Asko izan ziren garai batean intsumisio egin ziren gazteak eta epaiketak, espetxea, inhabilitazioa eta isunak ordaindu behar izan dituztenak. Intsumisioari esker, derrigorrezko soldadutza desagertuko da eta horren meritu osoa intsumisioaren alde lan egin dutenei zor diegu.**

Hala ere, jende horri guztiari, eta gizarteari orokorrean, armadak dauden bitartean zer salatu izango dela gogoratu nahi diet. Gastu militarra geroz eta handiagoa da eta hori ezin dugu onartu.

Marijo Deogracias



Batasuna prozesua

* Antton Mendizabal

Etor zaitez azaroaren 11n Monterron jauregian, goizeko 10:00etan, gauzatu den Euskal Herriko ezkerren batasunari buruzko eztabaidara. Zure burua abertzale ikusten baduzu, zentzu zabalean, eta zure burua ezkerrekoa ikusten baduzu, zentzu zabalean, gonbidatua zaudete.

Badakigu, egungo egoeran eta egungo Espainiako estatuan pentsamendu bakarra eta pentsamendu zeroa jaun eta jabe direla. Globalizazio kapitalistatik datorren pentsamendu bakarra eta Espainiako Estatutik datorren hausnarketarik gabeko pentsamendu zeroa. Bien arteko oinarri komuna pentsamendu intransijentea da. Horregatik, espainiar inperialismoak (bere eskuma eta ezkerre barne) gurekiko daukan intransijentzia eta berarekin loturik dagoen injustizia eta gehiegikeria.

Jakina, egoera gogorra dugu; azkenengo 30 urteetan ia ez dugu besterik ezagutu; baina, ego-

era berezi-gogorrek ere izaten dira, herrien askatasunaren ateaurreko guztiak. Hamarkada hauetan gauzatu diren zenbait jauzialdiren gainetik, eta sufritutako eraso guztien gainetik, mantendu gara eta gurekin bizi-bizirik dugu Euskal Herria. Baina, gure herrian eta mundu mailan ezagutzen ditugun aldatuta teknologiko, sozial, politiko eta kulturalak, hots, gizartean aldaketak, berriz aztertu behar ditugulakoan gaude. Ezinbestekoa da ezker abertzaleen barnean gaudenon arteko komunikazio-hausnarketa. Eta gaur eta hemen, hori da Batasuna prozesua.

Etorri zaitez azaroaren 11n, goizeko hamarretan, Monterron jauregian gauzatu den eztabaidara. Prozesu guztiz zabala, zeinak Euskal Herri osoko lurraldea eskuratu behar duen erakunde nazional berria sortuko duen. Prozesu anitza, zeinean dena erabakitzeko dagoen. Bost talde ezberdinek plazaratuko dituzte euren proposamenak eraiki nahi dugun herritarren batasunari buruz, eta hiru taldeek plazaratuko dituzte euren ildo politikoa. Beraz, aurkezpena izango da. Eta aurkezpena egitera joaten diren ponenteek zuzenean azalduko dituzten euren ponetziak eta batzarrean egon ezin duten kolektibo edo taldeek bidez egingo dute. Txosten aurkezpena 10 minutukoa izango da.

Alta, Monterron jauregian egingo duguna oinarritzkoa eta ezinbestekoa delako, etor zaitezte gure herriko eraikuntza nazionala eta eraikuntza soziala maitatzen duen guztiok.

*Batasuna taldeko kidea

“ Ezinbestekoa da ezker abertzaleen barnean gaudenon arteko komunikazio-hausnarketa ”

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu josteak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a
Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

ezkontzak

- Miguel Angel Besoita eta Maria Begoña Arregi, azaroaren 4an.
- Roberto Manjon eta Consuelo Saizar, azaroaren 4an.

jaiotzak

- Nerea Agirre Uribarren, urriaren 28an.
- Enaitz Irasuegi Goikoetxea, azaroaren 2an..
- Olatz Fernandez Heriz, azaroaren 3an.
- Garazi Muruamendiaraz Urkia, azaroaren 5ean.

heriotzak

- Felix Balanzategi Furundarena, azaroaren 2an, 91 urte zituela.
- Juan Romero de Frutos, azaroaren 3an, 75 urte zituela.
- Lucia Martin Gayo, azaroaren 5ean, 87 urte zituela.
- Fidel Azkoaga Leanizbarrutia, azaroaren 5ean, 80 urte zituela.
- Simona Arejolaleiba Amilburu, azaroaren 5ean, 89 urte zituela.
- Maria Gabriela Sainz Merino, azaroaren 6an, 84 urte zituela.
- Domingo Aranzabal Gaztelu, azaroaren 7an, 74 urte zituela.
- Isaac Larrañaga Orozko, azaroaren 6an, 72 urte zituela.

mezak

San Joan parrokia

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

- Larunbata**
19:00 (elebiduna)
- Igandea**
10:30 (gaztelaniaz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

- Jai egun bezpera eta larunbata**
19:00 (gaztelaniaz)
- Igandea**
12:00 (gaztelaniaz)

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua



OSTIRALA 10



LARUNBATA 11



IGANDEA 12

Lainoak areagotuko dira lehen orduetan, baina orduak aurrera joan ahala oskarbiak nagusituko dira.

Lainoak zerua estaltzen joango dira eta tenperaturak gora egingo du pixka bat.

Lainoak izango dira nagusi eta euri arriskua ere izango dugu. Temperatura ez da aldatuko.

eskelak


Eskelak, esker onak eta urteurrenak jartzeko tartea

Azken eguna: asteazken eguerdia

Tel.: 943 71 23 91

Urkuluko uraren maila

%66,3



Ilargia



Ilbete

Larunbatean, azaroaren 11n, ilbete izango dugu. Adi, beraz!

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

10

ostirala

■ **ZINEMA**

Plenilunio: 19:30 - 22:00.
13 urtetik aurrerakoendako.

■ **BERNARDO ATXAGA**

Idazlearen gogoetak irakurketari buruz izeneko hitzaldia emango du Bernardo Atxagak. Eskoriatzako Humanitate Fakultatean, 11:30ean.

■ **JAM ARETOA**

Gallon Drunk eta *Mermaid*-en kontzertua izango da Bergarako Jam aretoan. Sarre-rak 1.500 pezetan. 22:00etan.

11

larunbata

■ **ZINEMA**

La Comunidad: 17:00 - 19:30 - 22:00. 13 urtetik aurrerakoendako.

■ **LUDOTEKA SAN ANDRESEN**

San Andres Herri Eskolan izango da Txatxilipurdiren Ludoteka Ibiltaria. 11:00etatik 13:00ak arte.

■ **BLOODY MARY JAIALDIA**

Link Wray, Deke Dickerson & the Ecco-Fonics, The Phantom Surfers eta *The Church Keys* taldeen emanaldia izango da Jam aretoan, 22:00etan.

12

igandea

■ **ZINEMA**

La Comunidad: 17:00 - 19:30 - 22:00. 13 urtetik aurrerakoendako.

■ **BELDURREZKO ZINEMA**

Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinema Maratoia izango da Amaian, 17:00etatik aurrera.

13

astelehena

■ **ZINEMA**

La Comunidad: 19:00 - 21:30. 13 urtetik aurrerakoendako.

Bidezko merkataritza

Harreman Gobernuz Kanpoko Erakundeak Bidezko Merkataritza bultzatzeko Eroskin duten dendako produktuen dastaketa antolatu du. Zapatuan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara produktu horiek dastatzeko aukera izango du bertara joaten den orok.



Erreka Mari txotxongilo saioa



Asteartean, hilaren 14an, 3-7 urte bitarteko umeendako *Erreka Mari* txotxongilo

saioa eskainiko du Enkarni Genuak. Santamainako liburategian, 18:00etan.

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

14
asteartea

16
osteguna

■ **ZINEMA**

La Comunidad: 19:00 - 21:30. 13 urtetik aurrerako-
endako.

■ **AZAROKO ZINEMA**

David Lynchen *Una Historia Verdadera* filma eskai-
niko da Amaian, 21:30ean.

■ **JAM ARETOA**

Delta 72 taldeak kontzer-
tua emango du Bergarako
Jamen.

■ **ODOL-EMAILEEI
OHARRA**

Odol-ateratzea egingo
du Odola Sartzeko Euskal
Zentroak datorren azaroa-
ren 15, 16, 22, 23, 27 eta
29an. Anbulatorioan izango
duzue aukera, 16:00etatik
20:00etara.

■ **LOREZAINZA ETA
ELIKADURA**

Azaroaren 14 eta
15ean loreen zainketari
buruzko hitzaldiak emango
ditu Itziar Lazkano lorezai-
nak, Eroskiren Batzorde
Kontsumistaren eskutik.
Bestalde, azaroaren 16an
dieta mediterraniarraren
inguruan egingo da berba.
Monterronen, 16:30ean.

■ **TXIKI-PARKERA**

Gasteizko Txiki-parkera
irteera antolatu du Txatxili-
purdik azaroaren 18an.
Izen-ematea astelehenera
arte dago zabalik, Pablo
Urangan.

■ **EUSTAQUIO AGIRREO-
LEA ERAKUSKETA**

Eustaquio Agirreolea
margolari eta argazkilaria-
ren inguruko erakusketa
izango da Bergarako Pleno
Aretoan, domeka honetara
arte. Astelehenetik
egubakoitzera, 10:00etatik
21:00etara; zapatu eta
jaiegunetan, 12:00etatik
14:00ak arte eta
18:00etatik 21:00ak arte.

■ **MASAJE
PSIKOSENTSITIBOA**

Masaje psikosentsitibo
ikastaroa emango du
Aretxabaletan Jose Luis
Armendiak azaroaren 18
eta 19an. Izena emateko,
deitu 943 79 35 76
telefonora.

■ **BESAIDEREN IRTEERA**

Besaide mendizale
elkarteak San Leon-
Cervera-Palomaresera
irteera antolatu du,
azaroaren 19an. Izena
emateko Besaideren
egoitzatik pasatu azaroa-
ren 14, 15 eta 16an.
Bazkideek 1.100 pezeta
izango da, bazkide nagu-
sientzat 1.400, bazkide
gazteentzat 600 eta ez
bazkideentzat 900.

**Goikobalu eta
Bergarako Abesbatza**

Emanaldia eskainiko dute azaro-
aren 18an Goikobalu abesbatzak
eta Bergarako orfeoiaik.

Amaia antzokian izango da,
20:00etan. *L. Bernstein-en* "Chi-
chester Psalms" eta *J. Stainerren*
"The Crucifixion" jokatu-
ko dituzte.



Lan eskaintza

Publizitate teknikaria

BALDINTZAK:

- Euskara ondo menperatzea.
- Harremanetarako erraztasuna izatea.
- Gidatzeko agiriaren jabe izatea.

BALORATUKO DA:

- Publizitate, Marketing edo Enpresa Zientzietan ikasketak izatea.
- Herri Komuniabideak ezagutzea.
- Merkataritza agente bezala esperientzia izatea.
- Arrasate eta inguruak ezagutzea.
- Testu prozesatzaileak eta datu baseak erabiltzea.
- Autoa edukitzea.

Curriculumak azaroaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira, ARKOn egoitzan
Otalora Lizentziatua, 31 ARRASATE • Tel.: 943 71 23 90

astea bi hitzetan

■ **"Hilarri" etxean**

Hirurehun bat lagun elkartu ziren pasa den ostegunean Amaia Antzokian film laburren emanaldian. Erakutsitako filmen artean Manu Gomez arrasatearraren "Hilarri" ere estreinatu zen eta horrek ikusmina sortu zuen herrikideen artean.

Amaia Antzokian izan zen, hain justu, "Hilarri" filmaren lantaldea, bai zuzendaria eta baita aktoreak ere; tartean, Maider Egues eta bere ama, Margarita Ergialde.

■ **Feminismoa hizpide**

Jende ugari elkartu zen pasa den larunbatean Eskoriatzako Humanitate Fakultatean.

Arrasateko Udalaren eskutik, emakumeari buruz hitz egitea zen jardunaldien helburua, feminismoaren eta sexologiaren ikuspuntutik.

Lesbianismoa, mugimendu feministak eta, oro har, sexualitatea, izan ziren landutako gaiak. Hizlariak eta partaide gehienak emakumezkoak ziren.

Arratsaldean, berriz, Simone de Beauvoirren gaineko liburu bat aurkeztu zen: "Simone de Beauvoir: hone-taz eta hartaz". Idazle fran-tziarrak orain 50 urte argita-ratutako "Bigarren Sexua" izeneko liburu-a feminismo-aren historian mugarri izan da, eta hain zuzen ere, idazlea-

ren eta aipatutako liburuaren azterketa irakur daiteke larun-batean aurkeztutako liburuan. Pilar Sanpedrok idatzi du liburu-a eta Arrasateko Uda-lak argitaratu du.

■ **Espediente-a**

Eusko Jaurlaritzak udalari espediente-a ireki dio Antoñ-a inguruko zenbait lan baimen barik egin zituelako. Udalak milioi bat eta bost milioi peze-ta arteko isuna izan lezake. Horren aurrean, 9 alegazio aurkeztu dizkio Jaurlaritzari. Gura barik egindako hutse-gitea izan dela adierazi dio batean eta baita ere akatsaz konturatu eta berehala eska-tu duela baimena.




■ **20 urte kartzelan**

Kartzelan 20 urte bete dituela eta, omenaldi hunkigarria eskaini zitzaion larun-batean Pedro Guridi preso mondragoe-tarrari. Kale agerraldia egin zen aurre-nik. Ekitaldirik mamitsuena Amaia Antzokian izan zen. Unerik hunkiga-rriena Pedrotxoren gurasoak taula gai-nera igo zirenean izan zen. Antzokia txiki geratu zen horrenbeste jendekin.

“ Irratia tresna izan dadila euskara maitatzeko, zabaltzeko eta erabiltzeko. Kontuan edukita entzule eta kolaboratzaile ugari daudela, eskaria egiten dugu, alde batetik, euskara duina erabiltzeko eta, bestalde, bertako euskalkia erabiltzeko”.

JUAN LUIS AREXOLALEIBA
GOITB
(2000.11.3)



- Garajeko atearak
- Burdinazko pertsianak
- Automatismoak
- Urrutiko aginte tresnak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- Konponketak



JUBAR®
ATEAK, S.L.

Kataide industrialdea, 18 • Tel.: 943 79 10 20 •
Faxa: 943 79 08 17 • 110 Postakutxa • ARRASATE



Astero



Bailaran



Euskaraz



Doan



Abendutik aurrera, zure eskura.

Lekuko bila

Astelehen goizaldean istripua izan zen San Josepe auzoan. Kamioi batek 34 urteko A.A.E. mondragoetarra harrapatu zuen eta ondoren ihes egin zuen Gasteizko norantzan, zauritua lurrean utzita. Mondragoetar gazteak kolpeak hartu zituen gorputz osoan, baina bereziki eskumako hankan. Ertzantzarren arabera, ebakuntza egin behar izango diote.

Ertzaintza istripua ikusi duen norbaiten bila ari da, gertatutakoa argitzeko. Beraz, inork zerbait ikusi badu, dei dezala Mondragoeko ertzaintza-etxera, 943 797199 telefonora.

MCC eta kultura

Kultura ekintzak sustatzeko elkarte berri bat sortu da Donostian: Kursaal Fundazioa. Udazkenetik uda bitarteko kultura ekitaldiak bul-tzatuko ditu datorren urtetik aurrera. Dagoeneko, 240 milioi pezeta ditu horretan inbertitzeko.

Mondragon Korporazio Kooperatiboa elkarte berri horretako kide izango da beste erakunde batzuekin batera; besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostia-ko Udala.

MCC-ONCE

MCCk eta ONCEk Guadalajaran lantegi bat eraikitzeko 700 milioi pezetako inbertsioa egin dute. Fabrika horretan auto-endako eta etxetresna elektrikoendako osagaiak egingo dira eta 100 bat elbarrik egingo dute lan. MCCren aldetik, Tajo, MCC Osagaiak eta Alecop kooperatibek parte hartu dute egitasmoan. Beste alde-tik, berriz, Once eta Gureak Tailerrak. Lantegia pasa den ostiralean inauguratu zuten.

Euskararen bizi-indarra, aztergai

Arrasatek euskararen erabil-leraren alde egin duen aha-legina neurtu nahi du Udalak. Horretarako, euskararen bizindarraren azterketa egin hasiko da aurki. 9 hilabetez luzatuko da eta 2.300.000 pezeta ipiniko ditu udalak.

METODO HOBEAK

Neurtze metodoari dago-kionez, orain arte ez bezalako izango da ezarriko dena. Eustatek egindako inkestak eta kale ikerketa izan dira orain arte euskararen erabilera neurtzeko modu bakarrak, eta tresna horiek motz geratzen dira gauregun. Beraz, hainbat neurgailu edo irizpide biltzen dituen bes-



Arrasateko euskara maila beste lau herrietakoarekin konparatuko da.

te neurgailu bat aplikatuko da. Arrasateko emaitzak behar bezala baloratu ahal izateko, antzekoak diren beste lau herritan egingo da ikerketa bera, Bergaran, adibidez; ondoren, emaitza guztiak kon-

paratu egingo dira.

Dagoeneko, Iñaki Marti-nez de Luna EHUKO irakasle-ak prestatu du ikerketa egiteko modelo bat. Lana, berriz, Ibon Usarralde soziologoak egingo du.

Akeiko langileek dute arrazoia

Hiru urte pasatxoren ondoren, Auzitegi Gorenak arrazoia eman die Akeiko erraustegitik botatuko langileei.

Orain, hiru urteotan jaso ez duten dirua berreskuratzen saiatuko dira.

1996an hasi zen arazoa. Garai hartan, Akei erraustegia ixtear zegoen, eta ondorioz, han lanean ari ziren hamar lagunek kalera bota behar zituztela jakin zuten.

BAT-BATEAN, KALEAN

Kontua, ordea, ez zen hor geratu: Akei erraustegia zerbitzu publikoa zen, mankomunala; hala ere, Dragados y Construcciones enpresaren esku zegoen erraustegiaren kudeaketa; eta enpresa horrek lan eskaintza publiko baten antzeko irizpideak erabili zituen langileak kontratatzeko.

Dragados y Construcciones eta Mankomunitate-



Lau urteotan jaso ez duten dirua eskatuko dute orain langileek.

aren arteko hitzarmena bukatu zenean, enpresak langileen kontratuak etetea erabaki zuen.

Langileek zerbitzu publikoa ematen zuten, enpresaren jokabidea ez zela legezkoa uste izan eta ELA sindikatuak lagunduta, salaketa jarri zioten enpresari. Horrekin batera, mobilizazio eta protesta ugari egin zituzten Mondragoen, baina enpresak

bere horretan segitu zuen.

Orain, Auzitegi Gorenak bere epaia eman du eta kaleratutako langileek arrazoia dutela adierazi du, hau da, ez zituztela kalera bota behar.


ELA sindikatuak pozik dago lortutakoarekin. Baina, esan bezala, ia lau urteotan langileek jaso ez duten dirua eskatuko diote orain Dragados y Construcciones enpresari.

Bigarren aldiz atzeratuta Gernika Zumardiko lanak

Arrasateko Udalak beste espediente zigortzaile bat ireki dio Gernika Zumardia egiten ari den Brues Eraikuntzak enpresari. Bigarren aldiz, enpresak ez du bete Gernika Zumardiko lanak amaitzeko ezarritako data.

Lan horiek hasi zirenean, pasa den urteko ekainean, sei hilabeteko epean bukatu behar zirela ezarri zuen Arrasateko Udalak; urtarrilean, beraz.

Enpresa, ordea, atzerapeenez atzerapen ibili da eta apirilean udaleko Gobernu Batzordeak lehenengo espediente zigortzailea ireki zion. Horrekin batera, 2.250.000 pezetako isuna ere ordaindu behar izan zuen enpresak eta



Obenerrekako zubia erortzeak atzerapena eragin zuen zumardiko lanetan.

lanak amaitzeko data berri bat ipini zioten: urria.

AZARORAKO

Baina, urria heldu eta oraindik ez ziren lanak amaitu.

Beraz, Gobernu Batzordeak bigarren espedientea ireki dio enpresari. Enpresak, berriz, lanak hilaren amaieran bukatuko dituela adierazi dio udalari alegazio moduan.

Orain arte, Musakolatik Monterronerainoko pasealeku zatia egin da. Musakolatik Aldaigaineraino, lehen zegoen bidea konpondu dute; ondoren, Obenerreka zeharkatzeko zubi bat eraiki dute eta hortik aurrerako zatia, Monterronerainokoa, alegia, berria da. Guztira 133.515.000 pezeta pasatxoko inbertsioa egitea onartu da eta oraingoz 111.574.000 pezeta pasatxo gastatu dira.

Behin Monterronerainoko zatia amaituta, hortik Erguinerainoko zatiarekin hasiko dira. Dagoeneko onartu da zati horren proiektua eta beharrezko lursailak eskuratzeko prozesuan ari da orain udala.

Emakumeen lan-osasuna

ESK eta STEE-EILAS sindikatuek lan-osasunari buruzko datu kezagarriak eman dituzte Mondragoen. Gai horretan aditua den Izabella Rhofs hizlariak jakinarazi duenez, langileek jasaten dituzten buruko arazoak gero eta ugariagoak direla adierazten duten ikerketak daude. Gainera, salatu duenez, emakumeen lan-osasuna gizonetzkoena baino nahikotxo eskasagoa da eta askoz arreta gutxiago jartzen da

medikuen aldetik. Are gehiago: andrakumeen gaixotasun gehienak ikustezinak omen dira. Adibidez, hilerokoak sortzen dituen ondoezak ez dira kontuan hartzen; bihotzkoaren sintomatologia ere desberdina da emakumeen artean eta oraindik ez da horri buruzko azterketarik egin. Horrez gain, emakumeen gaitz asko ez dira kontuan hartzen eta depresio moduan tratatzen direla gaineratu du hizlariak.

Gaztetxearendako lurak

Gaztetxe berriarendako lurak eskuratzeko arau subsidiarioen aldaketa onartu du udalak. Aldaketa hori jendaurrean egongo da 30 egunez, jendarean alegazioak jasotzeko. Ondoren, burokrazia prozesu

luze bat egongo da lanak hasi aurretik. Litekeena da uda arte, behintzat, lanak ez hastea. Gaztetxe berria Uarkape udal pilotalekuaren atzealdean kokatuko da. 200 milioi pezeta inbertituko dira.

Aretxabaletako Industrialdea



Egokitzapen lanak egin eta gero, jarri da Aretxabale-tako Bainuetxeko Industrialdearen lehenengo harria. Euskal erakundeetako makina bat ordezkari izan ziren inaugurazio ekitaldian, Sprilurrekoak eta bailarakoak, adibidez. Lanak pasa den urtean hasi ziren eta 2001. urterako amaituta egongo dira. Guztira 15.000 m²ko azalera izango du eta Aretxabale-

tatik Mendiolara doan bidearen ezkerrean egongo da kokatuta.

Bainuetxeko Industrialguneak jarraipena emango dio 1982. urtean sortutako Basabekoari. Gaur egun, 70 enpresa daude hantxe eta 700 lanpostu inguru bete dira. Eremu horretan herriko zein bailarako lantegiek izango dute lekua eta dagoeneko salduta daude pabilioi guztiak.


MUK zortzi urterako plan estrategikoa aurkeztu du

Zortzi urtean MUREn ikasle kopurua %50 haziko da eta 6.500 milioi pezetako inbertsioa egingo du (4.500 lursailak erosteko eta 2.000 irakaskuntza-ekipamenduetan). Diru horri enpresen partaidetza izango duten unibertsitate-institutu berrien inbertsioak gehitu behar zaizkio, hau da, beste 5.500 milioi pezeta. Datu hauek ostegunean aurkeztu zuten Mondragon Unibertsitatearen plan estrategikoan jasotzen dira. Zortzi urterako plana da eta unibertsitate eredu berria definitzen du. Hamasei erronka estrategiko bereiztu dituzte MUKo ordezkariak, horietako bederatzia, unibertsitate barruko birmoldaketari dagozkionak; izan ere, "unibertsitatearen izateko arazoia da ikasleak lortzea eta enpresei zerbitzuak eskaintzea". Eta hortik abiatuz azpimarratzekoak dira MUK hizkuntza politikan egin nahi duen esfortzua eta ikerketa arloan egingo duen inbertsioa.

EUSKARAREN ALDEKO APUSTUA

Ikasleek euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez prestatzea da MUREn nahia. Unibertsitateko arduradunen arabera, "azken urteotan hizkuntza politikaren helburua honakoa izan da: gaztelaniako presta-

ESKUALDEAREN GARAPEN ESKEMA



MUK beste eskualdeekin harremanak estutzeko asmoa dauka.


kuntzari eutsiz, ikasleei ikasketak euskaraz egiteko aukera ematea eskatzen zieten; hemendik aurrera, MUKo tituluak bizitza profesionalean oinarritzko hiru hizkuntzatan aritzeko prestatuko ditugu eta pixkanaka euskara izango da MUKo harremanetarako hizkuntza".

Hau lortzeko irakasleak prestatu beharko dira eta unibertsitateko harremanen egitura orokorra aldatu beharko da, besteak beste.

IKERKETA GARATU

MUREn azterketaren arabera, unibertsitatearen inguruan dauden enpresarik gehienak txikiak dira eta globalizazioaren aurrean lehia-tzeko ikerketak berebiziko garrantzia izan behar du. Horregatik Unibertsitatearen lehentasunetako bat izango da ikerketa-ildoen definizioa egitea eta ikerketa zentroekiko harremanak estutzea. Irakasleek denborearen %50 ikerketari eskaintzea proposatzen du MUREn plan estrategikoak.

Horrez gain, sare bat osatuko dute MCC, unibertsitatea, teknologi zentroak eta ingeniari-tza eta aholkularitza enpresen artean. Hemen jasota egongo litzateke Garaia proiektuaren barne egingo diren 20 ikerketa zentroak.



Hau litzateke MUREn plan estrategiko osoa.

PUB HAIZEA



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



25 URTE ELKARREKIN



Bergaran egin zituzten ezkontza eta barkaria Maxik eta Espek azaroaren 5 batean, eta Bergarara bueltatu dira zilarrezko ezteak ospatzera. Ondoren, Kanarietara joango dira. Jesus eta Marinak zorionak opa nahi dizkiete, eta baita geuk ere!

EGUZKIAREN BERORA, PERRETXIKOAK ERRUZ



Ugaritasun handia erakutsi zuten Perretxiko Lehiaketan parte hartu zuten Arrasate Ikastolako 500 ikasleek. Txanpinoiak, lanpernak, astaputzak eta amanita muscaria motako perretxikoak izan ziren ugarien.

Telekomunikazio saltoki berrien irekiera

Arrasate

Maalako Errabala, 8-behea
Atzekaldea (Garibai)
Tel.: 943 71 27 81

Eibar

Errebal, 15-behea
Tel.: 943 70 03 69
Faxa: 943 20 63 79

Euskaltel produktuen salmenta orokorra:

 **Euskaltel**
batzen gaituena

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7-1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPIEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Análisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 659 58 66 89

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

HARA, ZER KOADRILLA!



Hona hemen Musakola Herri Eskolako ikasleak. Baratze eta Alkiza barnetegietan egon ziren urrian. Primeran pasa zuten, eta oroigarri bezala, argazki polit hauek atera zituzten.



BILOBEKIN ETA BIRBILOBEKIN

Iribarretsu hartu zituen bere 100. urtebetetzea zoriontzera joan ziren familiarteko, agintari eta komunikabideak Isabel Pinachok. 73 urte daramatza Arrasaten, eta 14 neska-mutikoren birramona da.

GAU BELDURGARRIA



Irlandako tradizioa da Halloween jaia; hori dela eta, Zeltar Gaua ospatu zuten urriaren 31n Erdiko Kaleko Dublin

taberna irlandarreko lagunek. Mozorro beldurgarri horiek soinean, ederki girotu zuten taberna.

Monte
taberna

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

ARRASATE
HOTELA

Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

UGARTE

Industria
hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 943 - 79 83 96 / 943 - 79 23 00
Faxa: 943 - 793412

Gatzaga txikian, azoka ha



8. urtez Gatzaga piztu egingo da datorren domekan. Jeneralean, lekua soberan izaten duten kaleak estu geratuko dira kanpotik etorriko den jende andana hartzeko. Guztiak ere Sanmilixan Azokak erakarrita.

Herriko artisauen ideia xume moduan hasi zen jarduera hau, dagoeneko herriko egunik garrantzitsuenetarikoa bilakatu da. Dorletako Ama Birjinaren egunaz gain, hauxe da, duda barik, Gatzagara jende gehien erakartzen duen eguna. Gatzagako 260 biztanleak leku bila ibili behar izaten dira kalean, hainbeste jenderen artean.

Gainera, aurren, inoiz baino eskulan gehiago ikusgai izango dira egun osoan zehar; izan ere, orain arte 14-15 postu egon izan badira, aurtengoan mugak gainditu eta 20 eskulangile izango dira Sanmili-

xan Azokan. "Horixe da urte-tik urtera somatu den aldaketarik nabarmenena, gero eta artisau gehiagok parte har-

tzen duela azokan; eta aurren, inoiz baino gehiago datoz". Halaxe esan digu Amaia Olabek, Gatzagako Udaleko kultura zinegotzi eta azokaren antolaketa taldeko kideak.

Horregatik, Gatzagako pilotalekua izan ezik, haren kanpoaldea ere azokarentzat agertoki bihurtuko da.

URTERO, BERRIAK

Bitxigintza, egur langileak, beiragileak, narrugintza, kupelgileak... Mota guztietako artisau lanak erakustea da antolatzaileen asmoa. Horregatik urtero-urtero berritasunak sartzen ahalegintzen dira, artisau berriei lekua eginez. "Artisauak urtero aldatzea izaten da gure asmoa; batzuek errepikatu egiten dute, baina gehienak berriak izaten dira".

Hori bai, artisauen artean gipuzkoarrek lehentasuna dute eta aurren ere halaxe izango da, artisau gehienak gure herrialdekoak izango dira-eta. Hauen artean debagoiendarrak ere badaude: Angiozartik bat eta Arrasatetik bat.

**Sanmilixan
ardikixa jan
eta aketeixan**
dio esaerak

"Gure azokara etortzea nahi duten artisauen curriculum ugari jasotzen dugu urtean zehar, eta horien artean aukeratzeko ditugu etorriko direnak, ahalik eta gipuzkoar gehien hartuz, noski".

EMAKUMEEN INDARRA

Aukeraketa hori, gainera, ona dela dirudi, ikusita, batez ere, zenbat jende hartzen duen Gatzagarako bidea. Dena dela, esan beharra dago Sanmilixan Azokan egon ohi den aparteko giroa ez dela bakarrik artisauari esker izaten. Herriko andreak badute zeresanik gai horretan; izan ere, "Sorginak" izeneko emakume talde bat jo eta su ibiltzen da egun horri berotasuna eman nahian. Beraiek arduratzen dira bisitarien tripa betetzeaz, eztarria freskatzeaz eta kaleko giroa alaitzeaz. Taloa, buzkantzak, txistorra, sagardoa eta musika dira horretarako erabiltzen dituzten "sorginkeria" batzuk.

Edozelan ere, emakumeen lana nabarmentzeko den arren, ezin ahaztu gatzagar ugarik parte hartzen duela azokan.



San Millanen eskapularioa ere badute azokan. Argazkian ikusten denez, gainera, herritar gehienek janzen dute, ohiturari eutsiz.

ndia



“La gehienok egiten dugu zer-bait, antolaketa ez bada, azoka egunean bertan, zirkulazioa bideratzen, postuak zaintzen... Oso jai herrikoia da”.

AUTOBUSA

Eta Gatzaga txikia izanda jendea justu-justu kabitzen denez, automobilendako ere leku berezi bat prestatu du udalak. “Azokara datozenek Dorletan utzi beharko dute autoa, eta gero handik autobusa izango da, bai Gatzagara etortzeko, bai eta berriro Dorletara auto bila joateko. Autobusa, azoka moduan, egun guztian egongo da, goizeko 10etatik arratsaldeko 8ak arte”.

Ikusten denez, bada, xehe-tasun guztiak zaintzen dituzte Gatzagan Azokara doazen bisitariak ahalik eta hobeto hartzeko; horixe da, antolatzaileen nahia: “Jendeari etortzeko esango nioke. Oso giro polita eta berezia izaten dugu hain herri txikia izanda; herria bera ere polita eta ikusgarria da. Aurten, gainera, txondor bat ere prestatu dugu ikatza nola eta nondik datorren erakusteko. Eta horrekin ez baduzue nahikoa, orain Gatz Museoa ikusteko aukera paregabea ere baduzue; beraz, animo eta etorri!”.

Ubane Madera



Berritasun moduan, aurten, txondorra egin dute Gatzagan.

“Gure lanbidea ezagutarazteko modu bat da”

Gatzagan bizi dira, hantxe dute narru denda: “Eskuz Lantegia” eta urtero fin-fin izaten dira azokan. Ezin bestela izan, gainera, bikote hauxe baita Sanmilixan Azokaren sortzaileetarikoa bat. Elisa Otero eta David Fernandezek makina bat urtetan dabilta narrua lantzen:

— Nolatan Sanmilixan Azoka?

— Natxu eta Fernando zeramikagileekin batera zer-bait egiteko gogoia genuen eta horrelaxe hasi ginen azokaren kontu horrekin. Edozelan ere, duela pare bat urte, eta bereziki gure lanbidearen eraginez, antolaketa lanak udalaren esku utzi genituen. Dena dela, azokan parte hartzen segitzen dugu.

— Azokak zer ematen dizue artisauei?

— Gure lanbidea ezagutarazteko modu bat da, jende-ari erakusteko artisautzatik bizitzea posible dela. Are gehiago, lehenengo azoka ia bakarrik Leintz bailarako artisauei izan zen.

Garrantzitsuak izaten dira, bai, mota horretako azokak; batetik, elkarren artean ezagutzeko eta, bestetik, artisauok gure lanak saltzeko leku bat izateko. Bata zein bestea oso garrantzitsuak dira.

— Askok eskatzen duen lanbidea da zuena...

— Bai, militantzia eskatzen du, ordu piloa; eskulanak egiten lehenengo, eta eskulan horiek merkaturatzen ondoren. Jende asko mugitzen den gunean batean dendaren bat izan ezean, artisauok gure kabuz ibili behar izaten dugu gure lana erakusten eta saltzen. Horretarako dira baliagarri azokak...

— Oro har, jendeak estimatzen du egiten duzuen lana?

— Baietz uste dut. Edozelan ere, azokak antolatzeko orduan aukeraketa hobeak egin beharko lirateke. Nire ustez, gaur egun azoka baten baino gehiagotan artisaunen maila apur bat baxua da.

— Dena dela, maila hobetzen dabilela dirudi...

— Bai, nik ezagutzen dudana jendearen artean ikusten dira hobekuntzak, eta baita lantegietan ere. Hala ere, beste edozein lanbidetan moduan, oso definituta ez dagoenez, askotan edozer gauza sartzen da artisautzaren barruan...



ENRIQUE ESPARTZA (ENOLOGOA)

“Errioxazale asko dago”

**Doke tabernako arduraduna dugu Enrique Espartza. Eta, zaudete ziur, hara joaten bazarete txikito bat hartze-
ra edo, primeran aholkatu ahal izango zaituztela Enriquek; izan ere, enologoa da bera, hau da, ardoetan aditua.**

—Ezohikoa da enologo arrasatear bat aurkitzea. Zelan bururatu zitzazun enologia ikastea?

—Gure aita nafarra da, eta aitona mahastiak zeuzkan. Nire beste aitona Arabar Errioxakoa zen, eta hara joateko ohitura nuen; Biasterin enologia irakasten zutela entzun, informatzera joan eta konbentzitu egin ninduten. Baina, hiru gipuzkoar baino ez geunden; gainontzekoak Araba eta Errioxa ingurukoak ziren.

—Familiako tradizioa zelako, ala ardoa gustuko duzula ikasi zenuen?

—Tradizioarengatik, alde batetik; baina, niretzat ez da lana soilik. Gustatu ere, gus-

tatzen zait ardoa, eta hori, nire ustez, ezinbestekoa da enologoa izateko; hori bai, ez da zure baitan daramazun sen bat; hori ere ikasi egin behar duzu.

—Zein lan irtenbide ditu enologo batek?

—Ez oso ugariak: adibidez, soto bateko arduradun edo laborategian kimika analisiak egiten; bestela, zure enoteka edo ardo denda zabaltzea, edo jatetxeren bateko aditu gisa, bezeroei gomendioak egiteko; horietan dira lan irtenbideak. Aipatu dudan azken hau gustatuko litzaidake niri egitea, baina, oraingoz, hementxe nago.

—Zelakoak dira ikasgaiak?

—Denetarik apur bat irakasten dute: mahastia, mahatsondoa... eta handik sotora: ardoa egiteko prozesua, pausoz pauso; nola maneiatu behar den ardoa; fermentazioa nola egiten den...

merkaturatzen den arte, pausoz guztiak.

—Eta dastaketa?

—Hori ere bai, karrera amaieran; baina, ardoaren sor-ketari ematen zaio arreta gehien, ez hainbeste ardo dastaketari. Horregatik, dastaketak nik neuk antolatuta behar izan nituen, nire kasa.

—Izango zinateke ardo mota desberdinak bereizteko gauza?

—Oso oso zaila da. Mota orokorrak

bereiz ditzaket, bakoitzak bere ezaugarriak dituelako. Esate baterako, “subiñana” motak gorputz handia du; “tempranillo” delakoa arinagoa da. Baina, ardo bat probatu eta, adibidez, 82.eko uztakoa dela esatea... zailagoa da.

—Baduzu ikasitakoak aplikatzeko aukerarik gaur egun?

—Ez, baina horretan nago. Adibidez, ikastaro bat ematea eskatu didate tabernako zenbait bezerok, eta otsailean hasiko naiz. Ikasketetan ezagutu nituen lagun batzuk ekarriko ditut laguntzailerik.

“Errioxan guztiak dute gutxieneko kalitate maila: ez dituzu beste toki batzuetan bezainbat ardo txar aurkituko”



hemen”

—**Esames ugari dago ardoaren inguruan; adibidez, osasungarria dela baso erdi bat edatea bazkalorduan...**

—Hala esan zidaten niri ere, ona zela. Dena dela, nik neuk ez dut ezagutzen ardoaren ezaugarri onuragarri berezirik, ez bada han esaten zigutena, gorputza alaitzen duela. Gauza bakoitza bere neurrian hartu behar dela uste dut.

—**Beste esames bat: ardoa zenbat eta zaharragoa, hobea.**

—Ez da egia, ezin dituzulako mugagabe gorde: adin jakin batera iristean, ozpin-tzen hasten da. Asko jota, 15 bat urte iraun dezake ardo on batek. Hortik aurrera, kortxoa ximurtzen hasten da, airea sartzen zaio eta alferrik galtzen da.

—**Noiz dago bere one-nean?**

—Gorputzaren arabera. Gorputz handia duen ardo bat kupelean eta botilan denbora luzeagoz gorde ahal izango duzu. Gorputz gutxi duen ardo batek gutxiago iraungo du, eta ezin da kupelean gorde, ahulegia delako.

—**Zer behar da ardo on bat egiteko?**

—Mahatso mota egoki batek asko egiten du. Gero, klima egokia izan behar duzu. Ardo egiten den uea ere inportantea da. Ondoren, behar diren edukiontzi eta iragazkiak erabili behar dira. Garraztasunaren eta graduazioaren -hau da, alkohol zen-

batekoaren- arteko oreka da ardo biribil bat egiten duena.

—**Zuk zeuk zelako ardoak dituzu gogoko?**

—Gorputz handiko ardoak gustatzen zaizkit, askori ez bezala: ahoari eutsita edo itsatsita geratzen zaizkizula esaten dute, hau da, astringenteak edo lehorgarriak direla. Neurri batean lehorgarria izatea ere ona da.

—**Eta tabernan, zein ardo eskatzen dizute?**

—Hemen, errioxar on bat atsegin dute. Errioxazale asko dago hemen.

—**Ospearen pareko kalitatea dute Errioxako ardoek?**

—Leku askotan egiten da ardoa, eta ardo egiten den leku orotan egiten dira ardo onak. Baina, Errioxan guztiek dute gutxieneko kalitate maila: ez dituzu beste toki batzuetan bezainbat ardo txar aurkituko.

—**Manipulazio genetikoek izango dute zeresanik ardogintzan?**

—Baliteke, bai. Gainera, badago horren harira gertakizun bitxi bat: oraingo mahatsoondoaren sustraia amerikarra da, mentua, beraz; mahatsoondo sustraiak filoxera izurriteak jota geratu ziren orain dela urte batzuk, eta Amerikatik ekarritako mota gogor-rago bat txertatu zitzairen mahatsondoei, gaitzari hobeto eusteko. Ez da gene manipulazioa, baina bai antzekoa, eta urte batzuk barru... batek daki. ■

EMAKUMEON TXOKOA

Literatura edo irakurketa tailerra Monterronen

Irakurtzea gustuko duen taldea bilduko da urritik malatzera Monterronen.

- **Hilero liburu baten kritika** egingo da. Idazlea, liburua eta literatur testuinguruari buruz hitz egingo da modu arin eta ulergarrian. Eta ostean elkarrizketa izango da, eztabaida eta galderak.
- **Hurrengo saloa:** azaroaren 27an, astelehena, arratsaldeko 18:00etan, Monterronen.
- **Proposatzen den liburua:** “Eskeregiteko eguna” Truman Capote
- **Zuzendaria:** Itziar Zubizarreta.
- **Izen ematea:** Monterronen, azaroaren 20 bitartean.

Ordenagailua hasteko ikastaroa

Etxean lan egiten duten emakumeel bereziki zuzenduta.

- Oinarrizko informatika.
- Ordenagailua hasteko aukera ezin hobearik.
- **Ordutegia:**
 - goizez 10:00-12:00
 - arratsaldez 15:00-17:00
- 28 ordu.
- **Izen ematea:** Gazte Bulegoan 943 77 00 65

Emakumeen Kontseiluko bilera

Azaroaren 15ean, asteazkena. Arratsaldeko 18:00etan. Udaletxeko bilera gelan.

Informazio gehiago, Arrasateko Udaleko Emakume Sallean, deitu 943 79 09 00 edo eta 943 79 41 39 telefonoetan. Gerturatu Arrasateko Udaletxera, herriko plazara. Helbide elektronikoa: emakume@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■

Saioa Gimnasioko karatekek hasi dute denboraldia

Orain dela bi asteburu Gipuzkoako junior mailako karate txapelketan egon ziren Saioa gimnasioko karatekek. Kadetetan, Iban Galan, Goizeder Caballero eta Mikel Zabartek hartu zuten parte; juniorretan,

berriz, Jorge Sanchez, Garbiñe Tera eta Patricia Moralesek. Donostiako Gaskon gimnasioan aritu ziren.

Neskek, azkenean, ezin izan zuten parte hartu, baina Euskal Herriko txapelketarako

txartela badute; mutilen artean, Galan eta Sanchez lehenengo tokian sailkatu ziren.

Sei karateka hauek azaroaren 28an Laudiora joango dira, Euskal Herriko karate txapelketa jokatzera.

Saioako beste karatekek azaroaren 18 eta 19an sustapen probak izango dituzte Donostian. Proba hauek gora-goko maila bateko gerrikoa lortzeko ere balio dute. Saioako hamabi karateka joango dira.



Iban Galan
15 urte
gerriko beltza (-60 kg)



Goizeder Caballero
15 urte
gerriko marroia (-70 kg)



Mikel Zabarte
16 urte
gerriko marroia (-75 kg)



Jorge Sanchez
19 urte
gerriko beltza (-70 kg)



Garbiñe Tera
19 urte
gerriko marroia (+60 kg)



Sandra Alvarez
19 urte
gerriko marroia (-55 kg)



Erik Martin
21 urte
gerriko beltza (-70 kg)



Patricia Morales
18 urte
gerriko marroia (-55 kg)



Idoia Aranburuzabala
21 urte
gerriko marroia (-55 kg)



Jon Vivas
18 urte
gerriko urdina (+80 kg)

KARATEKA BERRIAK
Honako hauek dira saioa gimnasioa ordezkatzuko duten bost karateka berriak. 14 eta 15 urte dituzte eta aurten hasiko dira txapelketak jokatzeko.



Josu Gonzalez
14 urte
gerriko marroia



Jon Rodriguez
14 urte
gerriko urdina



Laida Ramos
15 urte
gerriko beltza



Tania Diaz
15 urte
gerriko marroia



Amaia Ormaetxea
15 urte
gerriko marroia

SASKIBALOIA

Etxean berriro ere



Bigarren aldiz segidan etxean jokatu zuen Kenci Arrasatek. Saikapenean bigarren zegoen taldearen aurka jokatu zuen, Getxoren aurka, baina hori ez zen oztopo izan mondragoetarrentzat. Partidaren hasieratik aurretik ipini ziren Lander Errastiren mutilak. Nagusi izan ziren baloiarekin eta saskiratze asko egin zituzten; lehenengo zatia hamar puntuko aldearekin amaitu zuten. Hala ere, partidaren amaiera aldera akatsak egiten hasi ziren. Hori gutxi balitz, getxotarrek hiruko saskiratzeak sartzen bikainak direla ere erakutsi zuten eta horrek bi taldeen alde txikitzea eragin zuen. Bukaeran, Kenci Arrasate nagusi izan zen, baina tarte txikiagoarekin: 88-82.

Asteburu honetan Leioara joango dira Askartzaren aurka jokatzera. Talde hau lehenengo da saikapenean; beraz, partida zaila izan daiteke.

ATLETISMOA


Bigarren Irunen



Irungo Hiria herri krosa jokatu zen joan den igandean eta Arrasate Kiro-lak Atletiko Taldeko korrikalari batek hartu zuen parte lasterketan. Eta ez zuen edozelako lasterketa egin, gainera; izan ere, bigarren helmugaratu zen Markel Blanko. Alebinetan jokatu zuen eta irabazleak hiru metroko alde atera zion Markeli. Hamabi urte izateko, ez da ez marka txarra!

PILOTA

Uarkapen nagusi



Ostiralean lau t'erdiko txapelketa jokatu zuten Eugik eta Capellane. Lehenengoak sekulako jipoia eman zion Migeli. Gipuzkoako klubaren arteko txapelketan ere antzeko zerbait gertatu zen mondragoetar eta azpeitiarren artean: Osinagak eta Lazkanok jokatu zuten Arrasatek; Azpeitia ordezkatzen, berriz, Bristain lehen-

gusuek jokatu zuten. Lazkano bikain aritu zen eta ia bera bakarrik ari zela zirudien pilotalekuan. Azken emaitza 22 eta 10 izan zen arrasatearren alde.

FUTBOLA

Partida eskasa



Mondrak Ordiziaren aurka jokatu zuen Atxabalpen joan den asteburuan, eta, gutxienez, puntu bat eskuratu zuten! Baina, hori baino ez, zeren partida benetan eskasa izan baitzen. Partidaren lehen zatian ezin izan zuten baloia zelai erditik atera. Gauzak horrela, ez zen golik egon ez lehenengo ez eta bigarren aldian ere. Azkenean, 0 eta 0: puntu bakarra Atxabalpekoentzat.

ERRUGBIA

Hamahiruna




Berdinketarekin amaitu zen Arrasate eta Elorrioren arteko errugbi partida. Denboraldiko hirugarren

jardunaldian, etxean aritu ziren arrasatearrak. Bi taldeak nahiko parekatuta ibili ziren eta, agian, horregatik azkenengo minutuan erabaki gabe zegoen irabazlea nor izango zen. Azkenean ere, horrela amaitu zen partida. Puntuak bi taldeentzat izan ziren; hala ere, aipatu egin behar da, Arrasatekoek ez dutela, oraindik behintzat, neurketarik galdu.

Asteburu honetan Bilboko Fango zelaian arituko dira Unibersitario-Bilbo taldearen aurka; gazte mailakoek, berriz, Gasteizen jokatu dute.

XAKEA

Ezin irabazi



Galdu egin zuen Arrasate A xake taldeak larunbatean, 2,5-1,5, Gros Cren aurka. Hernandok irabazi egin zuen, Ortegak eta Tornayk berdindu egin zuten eta Arriaranek, berriz, galdu egin zuen. Arrasate Bk 3-1 galdu zuen Baionako laukotearen aurka, Donostian. Laukotea Andres, Mayo, Villar eta Hernandok osatu zuten.

Emaitzak

SASKIBALOIA

- **Seniorrak:** Kenci Arrasate 88 - Getxo 82
- **Kadete neskek:** K. Arrasate 65 - Internaci. 34
- **Juniorrak:** Tolosa 54 - K. Arrasate 61

FUTBOLA

- **Lehen erregionala:** Mondra 0 - Urola 0
- **Lehen mailako gazteak:** Bergara 2 - Mondra 5
- **Bigarren mailako gazteak:** Soraluze 4 - Arrasate 1
- **Ohorezko kadeteak:** Antiguoko 1 - Arrasate 2
- **Bigarren mailako kadeteak:** Arrasate 1 - Urki 0
- **Ohorezko infantilak:** Tolosa 1 - Arrasate 1

- **Lehen erregionalako neskek:** Mondra 4 - Ilintxa 1

ESKUBALOIA

- **Seniorrak:** Donibane 23 - Arrasate Almen 21
- **Gazteak:** Arrasate 23 - Aloña 24
- **Kadeteak:** Lasalle 12 - Arrasate 32

ERRUGBIA

- **Seniorrak:** Arrasate 13 - Elorrio 13
- **Gazteak:** Arrasate 7-Ordizia 45

XAKEA

- **Gipuzkoako lehen maila:** Arrasate C 0 - Eibar B 4
- **Gipuzkoako 3. maila:** Lazkao B 1 - Arrasate D 3

Jokatzekoak

SASKIBALOIA

- Larunbatean
- **Juniorrak:** Kenci Arrasate - Irurok, Musakolan, 16:00etan.

FUTBOLA

- Larunbatean
- **Lehen mailako gazteak:** Mondra - Idiazabal, 15:30ean.
- **Ohorezko kadeteak:** Arrasate - Añorga, 11:30ean. Igandean
- **Ohorezko infantilak:** Arrasate - Lagun Onak, 12:00etan.

ESKUBALOIA

- Larunbatean
- **Seniorrak:** Arrasate Almen -

Elgoibar, 18:00etan.

- **Kadeteak:** Arrasate - Elgoibar, 16:00etan, Iturripen.

XAKEA

- Larunbatean
- **Gipuzkoako liga:** Arrasate B - Eibar, 16:00etan, Al Andalusen
- **Gipuzkoako 3. mailan:** Arrasate D - Gros N, 16:00etan, Al Andalusen

PILOTA

- Ostiralean
- Azpeitia, Beasain, Hernani eta Eibarren aurka arituko dira Arrasateko bikoteak, Uarkapen, 18:00etan.

Larunbatean, 1. jardunaldia

Asteburuan hasiko da 2000-2001eko Zaldibarko areto futbol txapelketa. Hogeita hamazortzi taldek jokatuko dute txapelketa, bi multzotan banatuta:

A taldea	B taldea
Txeyenex	Rayo Aldeano
The Pippol	New Makai
Komando Alpargat	Ondakinak
Leya	Abocajarro
Serengeti	Sas T
AL Ion	AT Celaya
IKP	Full Duplex
Makanaki FC	Alai Gozokiak
YK Azkena	Pepelus
Rafa Luengo	Usotz Potroak
Drinbling	Irati STS
Kanpanzar Harrobia	Etixerat Taberna
Betrayer	DKB Kobate
Katxiporra	EPEH
Lasagabaster	Txotx
Bikain Akademia	Fraguel Gol
AC Surkos	Kamasutra
Aurrera Bolie	Koka Juniors Basati
Goma 2	AKTA

Joku arauak

Zaldibarko Antolakuntzakoek den-dena prest daukate, baina neurketen inguruko hainbat arau kontuan izatea komeni da:

- partidek 50 minutuko iraupena izango dute
- jokalaria guztiak elkartzeko 10 minutuko tartea eman-go zaio taldeari
- kornerrak hankarekin aterako dira Iturripen; Zaldibarren, berriz, eskuarekin
- alboko sakeak eskuarekin egingo dira eta eskuak buruaren gainetik ipini beharko dira
- faltak zuzenak eta ez-zuzenak izango dira; giza-hesia baloia jaurtitzen den lekutik lau pausotara jarriko da
- ateko sakea atezainak eskuarekin egingo du
- talde bakoitza arduratuko da bere aldetik ihes egiten duten baloien bila joateaz; horren arabera, baloia erre-kara joanez gero, baloia bota duen taldea izango da arduraduna
- taldeko aldaketak ate atzetik egingo dira

Partida interesgarriak

Larunbatean eta igandean jokatuko diren neurketen artean, hiru norgehiagoka aipatu nahi ditugu "interesgarri" atalean: Komando Alpargat - Betrayer, New Makai - Etixerat Taberna eta Ondakinak - DKB Kobate.

1. jardunaldia

azaroak 11, larunbata


Zaldibar	Epailea	Iturripe A
08:50 Sass T - Txots	(YK Azkena)	15:00 EPEH - Abocajarro (Fraguel Gol)
10:00 YK Azkena - Goma 2	(Txotx)	17:00 AT Celaya - Fraguél Gol (EPEH)
11:00 Komando Alpargat - Betrayer	(Goma 2)	Iturripe B
12:00 New Makai - Etixerat Taberna	(Betrayer)	15:50 Full Duplex - Kamasutra (The Pippol)
13:00 Leya - Katxiporra	(New Makai)	17:00 The Pippol - Kanpanzar Harrobia (Full Duplex)
14:00 Ondakinak - DKB Kobate	(LEYA)	Igandea, 12
15:00 IKP - AC Surkos	(Ondakinak)	Zaldibar
16:00 Txeyenex - Dribling	(IKP)	10:50 Pepelus - AKTA (Lasagabaster)
17:00 Rayo Aldeano - Irati STS	(Dribling)	12:00 Serengeti - Lasagabaster (Pepelus)
18:00 Alai Gozokiak - Koka Juniors Basati(Rayo Aldeano)		13:00 Makanaki FC - Aurrera Bolie (Serengeti)
19:00 AL Ion - Bikain Akademia	(KJ Basati)	



ARRASATE KIROLAK

MAILA TEKNIKOA.

Gailurrean ametsak
errealitate eskuragarriak dira



Kontzeziño, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 12 • Faxa: 943 77 05 30



Banakako kirolen eskaintza

Arrasate Kirol Proiektuaren (AKP) ezaugarrietako bat, eskaintzen duen kirol aniztasuna da; baina, aniztasun hori ez da mugatzen taldean egiten diren kirolek. Bakar-kako kirol eskaintza zabala du AKPk.


Alebin mailatik hasita, hau da, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako neska mutiletatik hasita, infantil mailara arte (DBH-ko 1. eta 2. mailara arte), lau urtez hainbat kirolean trebatzeko aukera izaten dute ikasleek.

Aurreko mailatan, bai kirol jokoetan eta baita aurrekirolean ere, bakarkako zenbait kirolean lehen urratsak emateko aukera izaten dute: igeriketan, pilotan zein atletismoan, esaterako. Hurrengo mailetatik aurrera, beste kirol batzuetan hasteko aukera izaten dute ikasleek, hala nola, tenisa, xakea, igeriketa, atletismoa, txirrindularitza edo pilotan.

Bi maila hauetan, alebin eta infantiletan, kirol hauek astean birritan egiten dituzte eta asteburuetan ere izaten dute ekintzaren bat edo beste.

✌ IGERIKETA

Igeriketa izan da ekintzarik arrakastatsuen aurrekoa. Ikastaroak eta entrenamendu



Astelehenero, asteazkenero eta ostiralero, ordubetez aritzen dira igerian neska-mutikoak.

kutsuko saioak tartekatutuzte begiraleek eta horrela bizitasuna eman diote eskaintza horri. Astean hiru egunez igeri egiteko aukera izan dute neska-mutikoek; astelehenero, asteazkenero eta ostiralero, ordubetez (17:00etatik 18:00etara).

Baina, tenisean ere ikasle askok eman dute izena: astean birritan aritzen dira tenisean Iturripen, asteazkenero eta ostiralero, arratsaldeko

18:00etatik 19:00etara.

Jakina, euska pilotak zaleak ere baditu txikienen artean eta, horregatik, Arrasateko pilota taldearekin elkarlanean asteartero eta ostegunero pilotan aritzeko aukera dute neska-mutikoek. Aurten Uarkapen aritzen dira asteartero eta ostegunero, bi orduz (17:00etatik 19:00etara).

Arrasate Kirolak Atletiko Taldearekin batera ere egiten dute kirola neska-mutikoek.

Korrika egiten, pertika jauzian, hesi lasterketan eta bestelakoetan asteartero eta ostiralero aritzen dira Iturripen, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara bitartean.

Baina, ezin dugu ahaztu hilero arrakasta gehien izaten duen kirol ekintza: mendi irteerak. Hilean behin antolatzen dira eta proiektuan dabilzan ikasle guztiek eta eurekin etorri nahi duten guztiek dute aukera.

Asteburuko hitzorduak Azaroak 11, larunbata

AURREKIROLA

✌ MINIESKUBALOIA

Iturripen

- 09:30** SFX B - SFX D
La Merced A - SFX U
- 10:15** SFX C - SFX E
- 11:00** Merced B - SFX A
- 11:45** SFX ST - Musakola
- 12:30** Aramaio - S. Viator A
S. Viator B - Erguin

✌ IGERIKETA

Musakola

- 09:45** Aramaio, La Merced B,
SFX (Santa teresa) 1,
SFX (Santa teresa) 2,
SFX B, SFX D
- 10:45** Erguin, SFX U, SFX C, S.
Viator B, S. Viator D
- 11:45** Musakola, SFX A, La
Merced A, S. Viator A

MULTIKIROLA

✌ MINISASKIBALOIA

NESSKAK

Musakola

- 10:30** SFX A - La Merced
- 12:00** Erguin - SFX U

MUTILAK

- 10:30** Musakola - Aramaio
- 11:15** SFX A - San Viator B
La Merced - SFX U
- 12:45** SFX B - Erguin

Kalitatezko filmak Beldurrezko Zinema Maratoian



El hijo de Frankenstein eskainiko dute euskarazko azpituluekin.

Domekan ikusi ahal izango ditugu Arrasaten Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko zinemaldian eskainitako hainbat film. 750 pezeta kostako dira sarrerak, eta fanzine bat ere oparituko dute. Jose Luis Rebordinos, Zinemaldiaren arduraduna, izango da aurkezlea.

7337 laburrak sari bat jaso du: Marta Belaustegik, prota-

gonistak, emakumezko antzezle onenaren saria jaso zuen. 1973an Asturiasko ikastetxe batera doan maistra baten rola betetzen du. Diego Fandosen *Hospital Krev* ere erakutsiko da, Europa Erdialdeko ospitale ilun batean girotua.

Film luzeetan ere, kalitatea nagusi. Mike Mendezzen *The Convent* umore beltzeko

filmak oso harrera ona izan zuen Sundanceko zinemaldian. Ondoren, 1939an Universal estudioek egindako altxor bat, *El hijo de Frankenstein*, euskarazko azpituluekin. Azkenik, aurtengo beldurrezko film onenatariko bat: Zeelanda Berritik dator kigun *The Irrefutable Truth about Demons*, benetako gertaeretan oinarritua.

Bi margo erakusketa zabaldu dira

Gaur inauguratuko da, 19:00etan, Arrasate Margo Taldeak Harresi aretoan egingo duen erakusketa. Azaroaren 26ra arte ikusi ahal izango dituzue taldeko 20 bat kideren margolan batzuk. Teknika desberdinez egindako lanak dira, baina olioa, espatula eta pastela dira gehien erabili izan dituztenak. Estiloari dagokionez ere, denetarik izango da, baina inpresionismoa izango da nagusi.

Beste erakusketa bat ere zabaldu da egunotan: Toki-Eder kafetegiak Elisabeth



Eguren eibartarraren oiha-lak erakutsiko ditu azaro osoan zehar. Arrate kultura eta aisialdi elkartearen "Topaleku" erakusketa-

aretoaren koordinatzailea da Elisabeth. Bere margoetan, bizitzarekiko eta askatasunarekiko grina islatu nahi du.

Olentzero Marrazki Lehiaketa

Arrasate eta inguruko 2.000 umek parte hartuko dute ARKOk antolatutako III. Olentzero Marrazki Lehiaketan. Arrasateko ikastetxe guztietako eta Almeneko 12 urte arteko ikasleek azaroaren 30era arte izango dute Gabonen inguruko marrazkiak aurkezteko epea. Parte hartze handia espero da, aurreko urteetan bezalaxe. Adin bakoitzeko irabazle bana aukeratu du Txatxilipurdik, eta marrazki sarituak *Arrasate Pressen* agertuko dira, abenduaren 22ko azalean.

Al-Andalus, Euskadiko Etxeen alde lanean

Andaluziako Gobernuko ordezkari bat, Teresa Agudo Antolakuntzako sailburuordea, izan zen zapatuan Arrasaten, Euskadiko Andaluziar Etxeen Federazioarekin bileran. Al-Andalus da gaur egun Federazioko lehendakari, eta elkarte horri tokatu zaio aurtengo bilera hartzea. Andaluziako Gobernuan ordezkari bat izatea da Euskadiko Andaluziar etxeek nahi dutena eta ordezkariari azaldu zioten. Horrez gain, etxeendako kultura ekimenak sustatzea eskatu zioten Teresa Agudori. Pozik azaldu zen Rafa Gomez arrasatearra bileran entzundakoekin, eta umore bikain berberaz ekin zieten ospakizunei han elkartutakoek: lehenengo bazkaria, eta gero, Al-Andaluseko folkloretaldean agerraldiak.

kontzertuak

JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Azaroak 16: **Delta 72** (2 sarrera)
 Azaroak 17: **Metalium + Avalon** (sarrera 1)
 Azaroak 18: **Albert Pla**
 + **Benito Malasangre** (2 sarrera)
 Azken eguna: datorren egubakoitza. <
 Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Bidali gurera: Arrasate Press, Otalora 31



asteko filma



La Comunidad

Spainia, 2000. Beldurrezko komedia. **Zuzendaria:** Alex de la Iglesia. **Aktoreak:** Carmen Maura, Eduardo Antuña, Maria Asquerino. **Kalifikazioa:** 13 urtetik aurrerakoendako.

HARIA

Agentzia inmobiliaria batendako lan egiten du Juliak. Horietako apartamentu baten jabea hil ondoren, 300 milioi pezeta aurkitzen ditu. Dirua nola sakelaratu bizilagunen haserre bere gainean erori barik... horra hor Juliaren buruhaustea.

KRITIKA

Carmen Mauraren antzezlan, binekak balira bezala filmatutako eszenak eta hain gustuko duen parodia kutsua dira Alex de la Iglasiaren azken filmaren funtsak. Azken punturaino zaindu du konposaketa, pertsonaien itxura eta giropena; baina, gidoia apur bat kolokan utzi du, eta haien aldean zurbilduta geratzen da. Orena, une oro entretenitzen duen beldurraren eta umorearen arteko oreka, nahiz eta De la Iglasiak ezer berri ez ekarri bere ohiko estiloari.

irakurle eta entzule

Iturria: Discopolis eta Hire

diskoak

U2

All that you can't leave behind (Island)




Bonok eta bere taldeak lehen-go doinuetara itzultzeko ahalgina egin dute lan horrekin. Baina, oraindik ere urrun samar

gelditu dira lehenagoko gitarra doinuetatik. *The Edge* saiatu egin da, baina "Beautiful deay", "Walk On" eta "New York" abestietan baino ez dira entzuten berak baino egiten ez dituen soinu horien arrastoak. Jeneralean, diskoa nahiko melodikoa da eta nahiz eta irlandarrek Steve Lillywhiten laguntza izan duten diskoa produzitzeko, ez dute lortu euren lehenengo lan haietara itzultzerik. Tekno doinuekin jolastu ondoren berriz ere U2-zaleoi eskainitako lana egingo zutela pentsatu genuen inozoenok. Argi dago ez ditugula "Sunday bloody sunday" edo "Where the streets have no name" bezalako abestiak gehiago entzungo. Estatubatuar peto-petoak bihurtu dira irlandar hauek, hala ere, kantu goxoak ere badaude: "Stuck in a moment you", "Kite" eta "In a little while" abestiak, esaterako.

liburuak

ESTEBAN, BORROKAREN ONDAREA

Ardi Beltza argitaletxea. 332 or. eta CDA



Irailaren 26an bete zen Esteban Esteban Nieto ETAKidearen heriotzaren lehen urteurrena. Hori dela eta, Ardi Beltzak -

aipa dezagun hemen, ikerketako kazetagintzari eskainitako euren argitalpena bere bizitzaren inguruko liburuxka hau plazaratu du. Euskaraz eta gaztelaniaz dator, eta 332 orrialde izan arren, laster eta erraz irakurtzen da, neurri handi batean argazkiz, marrazkiz, olerkiz eta eskaintzez osatua baitago. Esteban Estebanek berak idatzitakoak ere agertzen dira hemen. Horien artean, gehienak senideei eta adiskideei idatzitako gutunak dira. Bere testigantza agortzen denean, beste batzuek hartzen dute txanda: Pako Aristik, Hebe de Bonafinik (Mayo plazako ama bat), Iñaki Alvarez Errazkinek edo Josemari Iturralde, baina baita preso dauden edo egon diren beste hainbat lagunek ere. Olerkiak abesti eran ere agertzen dira, *El Drogas*, *Alaitz eta Maider*, *Andoni Egaña* eta beste hainbat ahotsarekin.

asteburuan zer

kontzertuak

URTEKO JAIALDIRIK ZOROENA

Bloody Mary rock jaialdi ibiltariak Bergegan egingo du geldialdia zapatu hone-tan, aukera-aukerako musikariek.

Lau hamarkadatan, munduko rock gitarristen maisu izan da *Link Wray*. "Gitarrista bakar batek hartu beharko balu heavy metala eta punka sortu izanaren ohorea, *Link Wray* izango litzateke", idatzi zuen egunkari batek berari buruz.

Metal eta punketik, Estatu Batuetako country, rockabilly, rock-and-rolla eta rhythm & bluesaren tradizioari eutsi dion talde batera pasako gara: *Deke-Dic-*

kerson & the Ecco-Fonics. Bi disko kaleratu dituzte, eta sustraidun rock doinu horiek Jamera ekarriko dituzte.

Gogorragoak dira *The Phantom Surfers*. Ondo pasatzea eta publikoari ere ondo pasaraztea da euren leloa. Horretarako, surf musika delakoa erabiltzen dute, baina "ez-profesional" moduan etiketatzen dute euren burua. "XXX party" deitzen da euren diskoa: atera kontuak!

Azkenik, baina ez eskasagoak dire-lako, New Yorkeko *The Church Keys* taldea izango dugu. 90. hamarkada hasierako doinuen oinordeko hauek ere adarra jotzea eta parranda dituzte gustuko. Zapatuan, 22:00etan; sarrerak 4.500 pezetan izango dituzue.

ESPIDO FREIRE (IDAZLEA)

“Esploratzaile intelektualak da idazlea”

Bilbon jaio zen Espido Freire, orain dela 26 urte. Hain gaztea izan arren, idazle honek Planeta saria irabazi du “Melocotones helados” nobelarekin. Ez da harrizkoa, kontalari aparta baitugu Espido. Horrela egiazatu ahal izan genuen eguaztenean Eskoriatzako Humanitate Fakultatean eman zuen hitzaldian.

—Idazlearen eta errealitatearen arteko harremanaz aritu zinen hitzaldian. Berezia da idazlearen ikuspegia besteonaren aldean?

—Bai, eta horretan datza idazlearen egitekoa: gehiengoak ez duen munduaren ikuspegi bat planteatzean, lurralde berriak agertaraztean. Aurretik doan esploratzaile intelektualak da idazlea: batzuetan, Amerika deskubritzen du, besteetan, Mediterraneoan.

—Artikuluak, nobelak, ipuinak eta entseguak egin izan dituzu. Zer duzu nahiago?

—Ipuin kontalari dut nire burua, eta horretan nago erosoan. Distantzia motza, baina sakona da ipuina. Pieza guztiek modu perfektuan egin behar dute bat. Nobelan gehiago sakabana zaitezke. Entseguak ahalegin dokumental eta intelektual handia eskatzen du, batzuetan nekeza dena.

—Deustuako edo Laudioako literatura tailerrak eramaten zenituen garaitik, asko aldatu zara?

—Alde batetik bai, bestetik ez. Izaera lehengo berbera da. Defendatzen ditudan terminoak ere berberak dira. Baina, urte pare bat pasa dira, Planeta saria ere bai... eta, nahitaez,



heldutasunera iristen zoaz.

—Planeta saria irabazi izanak badu presiorik idazten duzun liburuaren kalitatean?

—Ez. Orain agertuko diren nobelak lehendik idatzita ditut, eta, nire ustez, maila ona dute; beraz, ez dut sentitzen maila horretara iritsi beharraren presioa.

—Mende berriko istorioek zer dute kontatzeko?

—Bi gako izango dira hor: batetik, denbora ulertzeko modua aldatu egin da —dena bat-batean gertatzen da orain—; bestetik, errealitatea ulertzeko modua, hau da, munduarekiko nola garatzen garen: gure iritziak, gure arteko harremanak, asko aldatzen ari direnak: gizon-emakume rolak, talde gutxituen adierazpen askatasun berriak... Ildo horretatik joango dira istorioak.

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

- Arartekoaren erakundearen ikerketak burutzeko bekak. Epea: azaroak 21.
- Bilboko Arte Ederretako Museoan ikasketak edo ikerketak burutzeko diru laguntzak. Epea: abenduak 22.

■ LANA

- Oñatiko Udalak haur liburutegiko arduraduna behar du. Epea: azaroak 13.
- Debagoieneko Mankomunitateak ingurumen zerbitzuaren arduraduna behar du. Epea: azaroak 13.
- Tafallako Udalak animatzaile soziokulturala eta familia hezitzailea behar ditu. Epea: azaroak 13.
- Bilboko Udalako liburu-zaina eta gizarte langilea behar dira. Epea: azaroak 14.
- Ordiziako Udalak gizarte-langilea behar du. Epea: azaroak 14.
- Bilboko Udalako aukera berdintasuneko teknikaria. Epea: azaroak 20.
- Eskoriatzako Udalak peoi bat behar du. Epea: azaroak 23.
- Galiziako Real Filharmoniarako plazarak: biolinak, biola, biolontxelo, oboe, tronpa, tronpeta eta tinbalista. Epea: abenduak 1.

■ LEHIAKETAK

- Bideo eta zinema gaztearen lehiaketa Irungo Udalak antolatuta. Epea: azaroak 20.
- Portugaleteko 15. Komiki Lehiaketa. Gaia libre, zuri-beltez edo koloretan eta 4 orrialdeko luzerako lanak. Epea: urtarirrilak 31.
- AED Elkarteak XIV. Arrasate Lehiaketa antolatu du, ipuin, poesia, bertso paper, komiki, euskalki grabazio eta irratirerreportaje modalitateetan. Epea: otsailak 5.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

“Gehiengoak ez duen munduaren ikuspegi bat planteatzean datza idazlearen egitekoa”

Goitb

Goiena Telebista

OSTIRALA, 10

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Hamaika Magazin**
(errepika.)
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Astebete.** Asteko gairik garrantzitsunen errepasoa Marijo Deográciasekin.
- 22:00 **Soinuz blai.** Miren Gonzalezek aurkeztuta.
- 22:30 **Gatza eta Berakatza.**

LARUNBATA, 11

- 13:30 Asteko saioen errepika:
Gatza eta Berakatza, Xeleberri, Aurrez Aurre, Hamaika Magazin, Soinuz Blai, Astebete.

IGANDEA, 12

- 13:30 Asteko saioen errepika:
Gatza eta Berakatza, Xeleberri, Aurrez Aurre, Hamaika Magazin, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA, 13

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Astebete.**
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Goienasport.**



Gorka Etxabe.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**

ASTEARTEA, 14

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Goienasport** (errepika.)
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Xeleberri.** Zozketa berria abian jarriko dute xelebre hauek. Zozketa mundiala, hori bai! Astebukaera bat Gatzagako Gaztainuzketa mendi-etxeetan. Bi egun pasatzeko aukera zoragarria!



Xeleberriak.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**

ASTEAZKENA, 15

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Xeleberri** (errepika)
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Alkatearekin Berbetan.** Eskoriatzako alkatea gondidatuko dugu hamabostean behineko saio horretara.



Edorta Zubizarreta.

- 22:00 **Gatza eta Berakatza.**

Gatza eta Berakatza



Arantzazun bertan dago *Goiko Benta* jatetxea eta bertakoa dugu Miren Maiztegi, aste honetako sukaldari trebea. Plateren izenek liluratu bazaituztete dastatzerakoan pentsa nola liluratuko zaituzten. Asteroko kontua da, baina hala da... ezin dituzue saio hauek galdu. On egin!

Datorren astean

NOIZ

PLATERA

- | | |
|---------------|--|
| Astelehena 13 | Urdaiazpiko eta ziazberba lilura karraskatsuak entsaladarekin. |
| Asteartea 14 | Vichissoise krema beroa, Idiazabal gazta eta tipulin julianarekin. |
| Asteazkena 15 | Izokin eta gazta hotz terrina, tomatea eta aguakate olio-ozpinaz. |
| Osteguna 16 | Onddo lasagna berro kremarekin. |
| Ostirala 17 | Sagar tatina esne gain garratzarekin. |

OSTEGUNA, 16

- 13:30 **Albiste aurrerapena.**
- 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
- 13:55 **Alkatearekin berbetan**
- 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
- 21:30 **Hamaika Magazin.** Argazki kamara zoragarri bat irabazteko aukera duzu hamaika kontu ikasteaz gain. Deitu 943 71 23 93 telefonora eta utzi zure datuak. 50.000 pezetan baloratutako reflex argazki kamera zoragarria zurea izan daiteke.

22:00 Soinuz blai.

Haika Aizpurua arituko zaigu martxa jartzen GOITBn.



Haika Aizpurua.

- 22:30 **Gatza eta Berakatza.**

Arrasate Irratia mugak gainditu nahian

Bizi-bizi dator aurten Arrasate Irratia. Halaxe iragarri zuten irratiauren aurpegi berria erakusteko antolatutako prentsaurrean. Adierazi zuten, 50 lagun ditu Arrasate Irratiak bere programazioa egiteko, hamar langile eta berrogei laguntzaile. Lantalde zabal horri esker lortzen du irratia egunero-egunero, eta errepikapen barik, 10 orduan jardutea.

Horiexek dira ARKOren esku dagoenetik irratia izan dituen berritasunetako batzuk.

Datu hauen berri ematen izan ziren Aitor Orobengoa ARKOko lehendakaria, Juan Luis Arexolaleiba euskara zinegotzia, Xabier Zubizarreta alkatea eta Aitziber Aranburuzabala Arrasate Irratiko esataria. Prentsurrekoa Monterronen izan zen pasa den egubakoitzean.

Han azaldu zuten, irratiauren epe motzeko helburua goizeko programazioa



Programazioa ostiralean aurkeztu zuten.

ziurtatzea da. Epe luzekoa, berriz, arratsaldekoa eginez joatea. Hori guztia herritarren partaidetza indartuz eta euskara duina erabiliz. Eta hori guztia lortzeko, orain, egun osoko programazioa eskaintzen ari da Arrasate Irratia.

Gehiago jakin nahi izanez gero, badakizue, 107.7an aurkituko dituzuela Arrasate Irratiko ahots goxoak.

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepassoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

ASTEARTEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

ASTEAZKENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

OSTEGUNEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakutzen.

OSTIRALEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

LARUNBATEAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro eta zu.

Sariz beteta dator Xeleberri

Xeleberri asteartea, 21:30

Unai Iparragirre eta Iratxe Eguenek aurkeztutako Xeleberri saio zoro eta dibertigarriak sari potoloa banatuko du aurrerantzean.

Programako lehiaketako irabazleak Gatzagako Gaztainuzketako mendi-etxean asteburu bat pasatzeko aukera izango du. Ez da sari makala gero!

Zer egin behar den? Erraza da oso.

Astero, lehiaketa izango da Xeleberrin, parte hartu, bertoko telefonora deitu, 943 71 23 93, eta nork daki! Akaso zuk zeuk eskuratuko duzu saria! Gaztainuzketako mendi-etxean asteburu pasatzeko aukera, beraz!





Zoruk • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20



IBABE GARAJEA

Salmenta eta zerbitzua

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• 160 m²ko etxebizitza salgai Aretxabaletan. Sukaldea prest, 2 komun, 6 logela, jangela-egongela, terraza eta balkoia. Tel.: 943 79 78 04.

• Etxebizitza salgai Santa Marinaran. 4 logela, sukalde-jangela, komuna, trastelekua, berogailu indibiduala. Altzari eta guzti. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 98 14. Juan, 21:00etatik aurrera.

• Etxebizitza salgai Ferixalekuan. 3 logela, komuna, sukaldea (altzariekin eta beste), egongela eta gas berogailu indibiduala. Tel.: 943 77 19 48.

• Aretxabaletan 90 m²ko etxebizitza salgai: 3 gela, bainugela, saloia eta trastelekua. Altzariak ere badauzka. Tel.: 659 45 05 79.

• Etxebizitza salgai Aretxabaletan. Tel.: 649 93 07 32.

• Etxebizitza salgai Aramaion, kalean bertan: 70 m². Salneurri interesgarria. Tel.: 655 74 59 26. Iban.

2. Erosi

• Etxebizitza zahar bat erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 649 86 73 05.

3. Errentan emateko

• Bergaran, etxeko logelak aloka tzen ditut. Sukaldea erabiltzeko aukera. 40.000-50.000 pezeta hileko. Tel.: 943 76 15 40.

4. Errentan hartzeko

• Bikote batek etxebizitza alokatuko luke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 606 75 59 13 edo 653 72 28 94.

• Etxebizitza bila nabil Arrasaten, konpartitzeko. Presakoa. Tel.: 945 27 80 59.

• Etxebizitza edo gela bila gabiltzan 2 ikasle gara. Tel.: 943 74 13 93 eta 943 67 26 45.

• Arrasaten etxebizitza alokatu nahiko nuke. Tel.: 943 81 29 14. Ander (iluntzean deitu).

5. Etxeak osatzeko

• Lagun bat behar dut Arrasaten pisua osatzeko. Tel.: 943 77 13 20 (gauez).

• Pertsona bat behar da etxebizitza

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaineoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

konpartitzeko San Juan auzoan, prezioa da. 21.700 + gastuak. Tel.: 943 79 23 96.

• Etxebizitza alokatuko nuke beste ikasle batzuekin. Tel.: 943 80 64 05.

GARAJEAK

7. Saldu

• Arimazubi plazan garaje itxia salzten dut. Tel.: 943 79 18 13.

9. Errentan emateko

• Garajea alokagai edo salgai Kontzeziñon, 18,9 m²koa. Tel.: 943 79 96 17. 13:00 - 15:00 eta 21:00 - 22:00.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Lokala salgai Zarugalde kaleko 6. zenbakian. 60m² eta 22m²ko patioa. Tel.: 606 76 50 22.

• 100 m²ko lokala salgai. 2 solai-

ru. Kalealdea, 4-behean. Tel.: 943 79 42 65.

15. Errentan hartzeko

• 100 m²ko lokala salgai. 2 solairu. Kalealdea, 4-behean. Tel.: 943 79 42 65.

15. Errentan hartzeko

• Lasai ikasteko lokal baten bila gabiltza. Tel.: 943 79 63 60. Denis.

LANA

17. Eskaintza

• Taberna batean egingo nuke lan asteburuetan. Tel.: 77 02 17 edo 617 72 47 83.

• 35 urteko emakumea prest umeen bat arratsalde zaintzeko. Tel.: 667 85 15 10.

• Neska prest haurrak zaintzeko arratsaldetan. Deitu 943 71 58 74 telefonora.

• Mutila prest taberna batean lan

egiteko asteburuetan. Tel.: 943 79 17 15.

• Neska eta mutila prest edozein lanetan aritzeko. Tel.: 600 600 531.

• Neska prest umeak arratsaldez zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Neska prest umeak zaindu edo etxeko garbiketarako egiteko. Tel.: 943 79 94 20. Camila.

18. Eskaerak

• Tabernaria behar da. Tel.: 943 79 83 98 edo 943 77 17 97. Arantxa.

• Tabernaria behar da Bergarako kafetegiri batean. Kontratuarekin. Tel.: 943 76 59 28.

• Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko, goizez. Tel.: 653 71 77 97.

• Taberna baterako sukaldari lanak egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

• Taberna baterako pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

• Neska edo emakumea behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 52 40. 19:30etik aurrera.

• Esperientziadun ile apaintzaile profesionala behar da. Ikaslerik ez. Tel.: 943 79 12 81. Lanorduetan deitu.

• Oso martxa onean doan fruta dendak jabez aldatzen da. Tel.: 943 77 01 79.

• Etxeko lanak egin eta umeak goizez zaintzeko, neska edo emakumea behar da. Tel.: 943 77 04 70.

• Tabernarako neska bat behar da, asteburuetan lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• LH edo DBHko eskola partikularrak ematen ditut. Matematikak, fisika, euskara eta abar. Euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 71 46 28.

• Lizentziaduna, EGArekin, idazketa, irakurketa, euskara errefortzua eta LHko laguntza eskolak ematen ditu. Tel.: 649 22 51 07.

• Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen dira, eta baita ikasketarako teknikak ere bai. Tel.: 630 70 81 43.

• Ingelesan magisteritza duen irakasle batek ingelesezko, euskaraz

ko, gaztelaniazko eta matematikazko eskola partikularrak emango lituzke. Merke. Tel.: 943 79 37 17. Gaez deitu.

21. Eskaerak

• DBHko lehen mailako eskola partikularrak emango dituen pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 83 15. 21:00etatik aurrera.

• Gestio informatikan ingeniari-tza teknikoko algoritmikorako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 76 61 02.

• Ingeniaritza Teknikoko 1. mailako marrazki ikasgaiarako eskola partikularrak behar dira. Tel.: 943 79 37 96.

• Euskarazko eskolak behar ditut. Tel.: 943 79 09 69. 12:00 - 14:00. Amaia.

MOTORRA

23. Saldu

• Kawasaki K LX 300, 2 urtekoa salgai. Matrikula: SS-BB. Prezioa: 650.000 pezeta. Tel.: 626 00 54 33.

• Renault 21 TXE autoa salgai. 175.000 pta. Egoera onean. Tel.: 667 63 93 85.

• Trialerako motorra salgai, 250 cc, 125.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

• Auto bat salduko nuke. Niba Lada 1.600 VI-O. Tel.: 943 71 50 43. Gaez deitu.

• Opel Astra AX salgai; 1.600eko potentzia. Egoera onean, 4 urtekoa, merkea. Tel.: 617 60 84 45.

• Autoa salgai. SS - S. Oso merke. Tel.: 943 79 90 24.

DENETARIK

26. Saldu

• Ordenagailua salgai, 1997. urtekoa. Ezaugarriak: Pentium 133, inprimagailua eta bozgorailuak. Egoera onean. 80.000 pta. Tel.: 676 73 40 77.

• Erabili barik dauden eskiatzeko botak salgai; zenbakia: 40. Tel.: 943 77 17 48. Gaez deitu.

• Piragua salgai, arraun eta ontzi estalkia, merkea, ia berria. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

• GAC markako 2 bizikleta salgai, berriak, behin erabiliak, gizon eta emakumearendako. 40.000 pezeta (biak). Giltzarra doa. Tel.: 943 79 65 80. 19:00 - 21:00.

• Yors-Shire txakurkumeak salgai. Tel.: 943 76 18 96.

• 90 zm.ko bi koltxoi salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 79 14.

• Masajea emateko mahaia salgai. Tel.: 649 22 51 07.

27. Erosi

• Trial Sineko Monti bizikleta erosi-ko nuke. Tel.: 656 74 06 48.

28. Trukatu

• Egoera onean dagoen Seat Panda motor batekin trukatu nahiko nuke. Tel.: 677 42 58 30.

29. Eman

• Hil eta erdiko txakurkumeak oparitzen dira. Tel.: 676 37 96 36.

30. Hartu

• Telebista zahar bat hartu edo erosten prest. Tel.: 943 77 91 25. Jon.

• Bizikletarik sobran badaukazu, geuk hartuko genuke. Tel.: 943 79 49 11. Jesus.

31. Galdu

• Irailaren 9an angorazko katu marroi-zuria galdu nuen. Tel.: 943 79 36 82


32. Aurkitu

• Zilarrezko eraztuna aurkitu dut. Tel.: 943 79 49 06. Gaez deitu.

HARREMANAK

37. Bestelakoak

• Berreskuratu zure osasuna energia erabiliz. Gaixotasun mota guztiak, norberarentzako tratamenduekin. Deitu inolako konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 45 74.



weru
Ate + leihoak




ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95

ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...



Toledoraino joan gara aste honetako argazki zaharrean. 1968. urtean atera zen argazki hau San Juan de los Reyes izeneko monasterioaren aurrean. Ezkerretik hasita, hauexek dira argazkiko mondragoetarrak: David Artzamendi, Carmelo Heriz, Pedro Zumelaga, Francisco Nafarrate eta Juan Artzamendi. Edozelan ere, aste honetako argazkian pertsonak ez dira garrantzitsuenak, baizik eta monasteriotik zintzilik agertzen diren kateak.


Kontua da, 1943. urtean Antonio Uragari, "Antton Kirru", mondragoetarra Langileen Batailoian zegoela, infanteriako akademia berria eraikitzen. Behin, batailoiko taldetxo bat Grekoren Museoa bisitatzera joan zen. Itxura denez, hango funtzionario batek kontatu zion Antonio Uragari monasterioko kateak, segurenik, Mondragoen landutakoak izango zirela; izan ere, garai hartan Mondragoen landutako burdinarekin komertzio oso handia zegoen; oso famatuak izan ziren Espainia osoan, adibidez, hemen landutako ezpatak eta gauza bera gertatu zen geroago hemen landutako burdinarekin.

Mondragoen landutako kate horiek preso hartutako kristauak gatibatzeko erabiltzen zituzten mairuek, eta mairuen kontrako gerra bukatu zenean ipini ei ziren zintzilik San Juan de los Reyes monasterioan.

*Argazkia: Pedro Zumelaga.
 Berriemaileak: Pedro Zumelaga eta
 David Artzamendi.*



Ongi etorri!



Azaroaren 17an, 19:00etan
 Opel Corsa eta Astra Coupe
 berrien aurkezpen ekitaldia
 Talleres Olan.

OPEL 

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa z/g
 Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN
 Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86

Fantasiarazko eta beldurrezko zinemaren maratona



Egitaraua

Laburmetraiak

- "7337" Sergio G. Sanchez.
2000. 16 min.
- "Krev Ospitalea" Diego Fandos.
2000. 14 min.

Luzemetraiak

- "Komentua" Mike Mendez.
2000. EEBB. J.B.A. (gaztelaraz)
- "Frankenstein semea"
Rowland V. Lee.
1939. EEBB. J.B.A. (euskaraz)
- "The irrefutable truth about
demons" Glenn Standring.
2000. Zelanda Berria. J.B.A. (gaztelaraz)

Amaia Antzokian

Azaroaren 12an (igandea)
Arratsaldeko 17:00etan
Sarrera: 750 PTA.

Altzari atseginak... zentzu guztietan



Zure gustu ona konkistatzen duten estilodun altzariak.

Gaur egungo altzariak, zure espazio eta aurrekontura egokitzen direnak.

Gure dekoratzaile profesionalen orientabide adituarekin eta baldintza ekonomiko ezin hobeeekin:

- 6 hilabetetan, eskura ordaintzeak dakarren deskontuarekin.
- 24 hilabetetan, interesik gabe eta 6 hilabetetik aurrera ordaintzen hasita.

Zatoz Arrasateko *TodoMueble* KABIAra. Zure etxea tokirik atsegina bihurtuko duzu.

